

## AURKEZPENA

Liburuzale eta bibliotekazale den ororentzat, atsegin handikoa izaten da katalogo bibliografiko bat aurkeztea. Jakin badakigu, katalogo horren bidez, bide berriak zabaltzen zaizkigula, alegia, jakituriaren eta ikerketaren ate berriak.

Gakoak izaten dira halakoak. Gakoak, eta, esan dezadan argi, bidegile egokiak, gerogarrenean katalogoaren bidez idoroko ditugun altxor bibliografikoen erakusle.

Halakoa berez izanda, zer esan Jose Antonio Arana Martixa euskaltzainkidearen biblioteka-katalogoa aurkezten denean? Lehendabizi, poza adierazi. Poza, adiskidearen, behinola aitaponteko akademikoaren eta ikerzaile nekazinarren lana gorpuztua ikustean.

Eta, hasian hasi, harridura erakutsi. Bizkaitar euskaltzain osoen dekanoa den Jose Antonio Aranari ezin uka dakioke eredugarritasuna. Bibliografia, biblioteka... askorentzat erakargarri egin ditu, Akademiaren barruan zein kanpoan.

Horren froga da Azkue Bibliotekak Jose Antonio Aranaren bibliotekaren gainean egindako katalogazio-lan bikaina. Horren ordaina, bide beretik ere, Euskaltzaindiak egin duen ahalegin apartekoa, katalogo hau izan dadin, aldeztu eta moldez, horrelako lanak argitaratzeko tenore berri baten seinale.

Jose Antonio Aranak merezi du. Euskal bibliografiak ere merezi du. Balia dezagun guztiok tresna berri hau, Jose Antonio Aranak Akademiaren eskuetan jarri duena. Guk, horretarako hitzarmena sinatu genuenean, argi esan genuen: hura gizarteari eskaini behar zitzaion. Halaxe egin dugu, eta emaitza esku artean duzu, irakurle prestu zaren horrek.

Andres Urrutia